

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Etxaide jauna, buru, ta Mitxelena, Lojendio, Aita Villasante, Gorostiaga, euskaltzaiñak, eta Zugasti, Irigoyen ta Alvarez Empananza, urgazleak. Arrue, Anai Berriotxo ta Aita Larrañaga Pingliang-go Obispo jaunak ezin etorria adierazo dabe.

Mitxelena jaunak adierazoten dau Euskaltzaindiak AitaLarrañaga Pingliang-go Obispoari ta baita Pedro Sancristobal Zaragoza-ko Unibersidadeko irakasleari idatzi egin bear leuskiela eskerrak emonik Unibersidade aretan euskerazko ikastaro bat zabaltzeko egin dabezan aalegiñakaitik. Irakaslea Aita Benito Icaztegieta izango da. Olan egin bedi.

Karta bat artu da Bilboko Obispadutik Teodoro Ignacio Jiménez y Urresti Dionesiseko Fiskal Generalak zuzendua. Gauza batzuk jakin gura ditu Bilbon San Nikolas-ko Parrokian dagoen euskal eskolearen gaiñean. Beste karta bat bere artu da eskola orretara doazan umeen zazpi gurasok firmaua, Euskaltzaindiari laguntasuna eskatuten deusiela San Nikolas-ko katekesisa itxi delako eta beragaz batera euskal eskolea bere bai. Erantzun bedi zelan Euskaltzaindiak Bilbon daukan R. M. Azkue katedraren bidez aalegin guztiak egin zituan euskal eskola ori zabaldu eta bear zirean prestaerak egiteko. Gurasoeri erantzun bekie eskolearen alde erantzun dauela Euskaltzaindiak.

Gero Txinpartak zuzendu dauen karta eta agiri bat irakurri dira. Erantzun bedi zelan teatroaren alde daukien asmo eta gogoia oso begi onez ikusten dauen Euskaltzaindiak.

Karta bat artu da Leioa-ko "Grupo Alpino Lejona"-tik diñoela euskerazko ikastaro bat zabaldu gura dabela Luis Aguirre abade jauna irakasle izango dalarik. Erantzun bedi oso begi onez ikusten dauela Euskaltzaindiak eta prest dagoela aal dauen laguntasun guztia emoteko.

Euskalzaleen biltzarra Abenduko 13-an eta 14-an egin bedi Bilbon.

Blas Fagoaga jaunak lan bat bialdu dau **Euskera**-rako, "Joaquin Lizarraga-k darabiltzan itzak".

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.